

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 161,5 milioi euro errekuaperatu zituen iaz iruzur fiskalaren aurkako borrokaren bidez

Zifra hori 2011n errekuaperatu zena baino % 31,18 gehiago da eta Nafarroako Ogasunaren diru-sarrera guztien % 5,42

Lunes, 25 de marzo de 2013

Nafarroako Zerga Ogasunak 161.500.966 euro errekuaperatu zituen 2012an, urteko diru-bilketaren % 5,42 (2.978 milioi euro) iruzur fiskalaren aurkako kanpainan egikaritutako neurriekin. Hala adierazi du lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak, 2012. urtean egindako [kanpainaren balantzearen](#) aurkezpenean. Zifra hori 2011n errekuaperatutakoa baino % 31,18 gehiago da; urte hartan iruzur fiskalaren aurkako borroka 123.117.663 euro errekuaperatzea erdietsi zuen (urteko diru-bilketaren % 3,91).

Zerga-iruzurraren aurkako borroka Ogasunaren mende dauden hiru jarduketa-arlotik egikaritzen da: kudeaketa, ikuskaritza eta zerga-bilketa.

Kudeaketa-arloan hainbat zergaren aitortpenen berraztertze arruntaz arduratzen da. Zehazki, 2012an guztira 40.922 likidazio berraztertu ziren eta, haien bidez, 58.647.507 euro errekuaperatu ziren.

Zenbateko horren zati handiena BEZaren aitortpenak berraztertzearen bidez errekuaperatu da (24,6 milioi euro), nahiz eta PFEZren zergenak ere nabarmentzen diren (7,1 milioi) eta Sozietateenak (6,09 milioi). Errekuaperatutako gainerako zenbatekoa honako bide hauen bidez iritsi da: errekerimenduak (8,4 milioi), zehapen larriak (5,5 milioi), aitortpen desegokien errekuarguak (2,01 milioi) edo beste zenbait bide (4,7 milioi).

Ikuskaritza-arloak, izan daitezkeen iruzurrak ikertzeaz arduratzen dena, guztira 1.076 jarduketa egin dizkie 253 zergaduni eta, haien bidez, 69.499.283 euro errekuaperatu dira. Arlo horren barnean 30,8 milioi euro ekarri dituen lau delitu fiskal azpimarratu behar dira.

Azkenik, **zerga-bilketako** arloaren bidez, Ogasunarekin dauden zorrak premiamenduz kobratzera arduratzen dena, guztira 33.354.176 euro batu dituen 42.063 jakinarazpen igorri dira.

Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoa 351 langilek osatzen dute, eta haietatik 44 ikuskatzaileak dira (2000. urtean baino % 33 gehiago). 2008an abiatu zen iruzurraren aurkako egungo Planean jasotzen denez, langile guztiek lan egiten dute zergen nahitaezko ordainketan izandako ez betetzeak ekidin eta aurkitzeko; horrez gain, herritarrei informazioa gardena eta erraza emango diete izapide hori sinplifikatuko duena.